

Gizarte Zientziak Ikasgelan

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa I
- **Izaera:** Derrigorrezkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Marta García Rodríguez

2. Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua

Helburua da ikasleek ezagutzea zer lotura dagoen Gizarte Zientzien ezagutza akademiko-diziplinarioaren eta eskoletan sortzen den jakintzaren artean, interakzio eta bitartekaritzako faktore ugariak identifikatzeko eta faktoreak kontuan izateko irakaskuntza planifikatzerakoan. Hori lortzeko, gizarte-zientzien didaktikan murgiltzea proposatzen da, hiru pausotan. Lehenik, gaiaren inguruan daukagun aurretiazko jakintza aktibatuko dugu, gizarte-zientzietako ikasle ginenekoa eta, jarraian, gizarte-zientzien ikas-irakaskuntzan aurki daitezkeen zailtasun batzuen berri ere izango dugu. Bigarrenik, teknika metodologiko zehatzei helduko diegu eta haien inguruko hausnarketa bat egingo dugu. Halaber, konpetentzien bidezko ebaluazioa nola egin ikasten hasiko gara. Hirugarrenik, ikasgaiaren zehar ikasitakoa praktikan jarriko dugu, diziplinarreko ikas-egoera baten justifikazioa eginez.

3. Konpetentziak

- Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiako ikas-irakaskuntzaren garapen praktikoak ezagutzea
- Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiako curriculumak jarduera- eta lan-programa bihurtzea
- Ikasketa erraztu eta ikasleen ekarpenak aintzat hartuko dituen giroa sustatzea
- Ikus-entzunezko eta multimedia komunikazioko prestakuntza ikas-irakaskuntza prozesuan txertatzea

4. Ikas-emaitzak

1. Gizarte Zientzien didaktika ulertzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren programazioa osatzen duten atalak zein sekuentzia didaktikoaren ezaugarriak ezagutuz eta identifikatuz, eta prozesu horren baitan sortzen diren zailtasunen berri izatea ere.

2. Gizarte Zientziak ikasteko eta irakasteko teknika metodologikoak ezagutzea, bakoitzaren ahulezia eta indarguneak ulertuz eta kasuan kasu erabiliko den metodologia aukeratzeko irizpideen hausnarketa eginez.
3. Masterreko moduluan jorratutako gaien eta eskola-esperientziaren artean loturak ezartzeko gai izatea, eta, horri buruzko hausnarketa eginez, irakaslearen gaitasunak garatzean dauden gabeziak eta alternatibak kontuan hartzea, eta, aldi berean, bere lanbide-kultura osatzeko erreferentziak izendatzeko gai izatea.
4. Gizarte Zientzien irakaskuntzako eta ikaskuntzako estrategiak eta prozedura-motak zein horiek garatzeko behar den baliabide-mota bakoitzaren ezaugarriak bereiztea, eta jarduera gauzatzeko egin beharreko urratsak zehaztea.
5. Gizarte Zientzietako ikasketak ebaluatzeko dauden tresnak eta irizpideak ezagutzea, haien faseak, osagaiak eta funtzioak ulertuz, eta, aldi berean, ebaluazioa kontrol-modu bat izatetik hezkuntza-tresna izatera pasa daitekeela ulertzea.
6. Konpetentzia bidezko ebaluazioa egiten ikastea, metodologia aktiboekin eta lege bat datorren ebaluazio-moduak ezagutzea (77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum a ezarri eta ezartzeari buruzkoa; 76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoko curriculum a ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeari buruzkoa) eta, ildo horretan, diziplinarteko ikas-egoerak egiten ikastea, Gizarte Zientzien eta beste diziplinen arteko loturak ezarri.

5. Edukiak

1. Gizarte Zientzien didaktika eta programazioa
 - 1.1. Gizarte Zientzietako ikasle-esperientzia
 - 1.2. Gizarte Zientziak ikasteko eta irakasteko zailtasunak
2. Gizarte Zientzien didaktikaren teknika metodologikoak eta ebaluazio moduak
 - 2.1. Metodologia ereduak
 - 2.2. Ebaluazio metodoak.
3. Diziplinarteko ikas-egoerak sortzeko baliabideak

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

- Arroyo-Sagasta, A. (2019). Egungo metodologia-joerak. In IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan (or. 53–67). UPV/EHU eta UEU.
- Ballesteros Alarcón, V. (2016). El aprendizaje-servicio como metodología didáctica. In Á. Liceras Ruiz & G. Romero Sánchez (Arg.), *Didáctica de las Ciencias Sociales. Fundamentos, contextos y propuestas*. (or. 235–248). Pirámide.
- Berritzegunea. (d. g.). I Anexoa. Ikasleen irteera-profila EAE-ko oinarrizko irakaskuntzaren amaieran.
- Cabrera, L. T. (2018). Principios Metodológicos de la Multimodalidad para la formación del profesorado de Ciencias Sociales. REIDICS. *Revista de Investigación en Didáctica de las Ciencias Sociales*, 3, 71–86.
<https://doi.org/10.17398/2531-0968.03.71>
- Fernández March, A. (2006). Metodologías activas para la formación de competencias. *Educatio Siglo XXI*, 24, 35–56.
- García Pérez, F. F. (2021). Algunas dificultades del profesorado de geografía para educar en ciudadanía. *Didacticae: Revista de Investigación en Didácticas Específicas*, 9, 39–52.
<https://doi.org/10.1344/did.2021.9.39-52>
- Garmendia Castaños, A (2022): “1. gaia: Zailtasun batzuk gizarte-zientzien irakaskuntzan”, UEUko irakaskuntza masterreko apunteak.
- Garmendia Castaños, A (2022): “2. gaia: Gizarte-zientziak ikasteko zailtasunak”, UEUko irakaskuntza masterreko apunteak.
- Garmendia Castaños, A (2022): “3. gaia: Teknika metodologikoak”, UEUko irakaskuntza masterreko apunteak.
- Liceras Ruiz, Á. (2000). Tratamiento de las dificultades de aprendizaje en Ciencias Sociales. Grupo Editorial Universitario.
- Liceras Ruiz, Á. (2016a). *Didáctica de las Ciencias Sociales. Fundamentos, contextos y propuestas*. Pirámide.
- Liceras Ruiz, Á. (2016b). Las dificultades en la enseñanza y el aprendizaje de las Ciencias Sociales. In Á. Liceras Ruiz & G. Romero Sánchez, *Didáctica de las Ciencias Sociales. Fundamentos, contextos y propuestas* (or. 95–115). Pirámide.
- Pagès Blanch, J. (2011). ¿Qué se necesita saber y saber hacer para enseñar ciencias sociales? La didáctica de las ciencias sociales y la formación de maestros y maestras. *Edetania*, 40, 67–81.
- Peralta Lara, D. C., & Guamán Gómez, V. J. (2020). Metodologías activas para la enseñanza y aprendizaje de los estudios sociales. *Sociedad & Tecnología*, 3(2), 2–10. <https://doi.org/10.51247/st.v3i2.62>

Quinquer Vilamitjana, D. (2004). Estrategias metodológicas para enseñar y aprender ciencias sociales: Interacción, cooperación y participación. *Íber*, 40, 7–22.

Ramirez de Okariz Telleria, I. (2021). Giza eta gizarte-zientziak eta Irakasleen Prestakuntzarako unibertsitate-masterra: Paradigma epistemologikoa. *Tantak*, 33(2), 9–27.

Sanmarti i Puig, N. (Director). (2022, otsailak 24). La evaluación en la LOMLOE. Sanmarti i Puig

Santisteban Fernández, A. (2019). La práctica de enseñar a enseñar Ciencias Sociales. Enseñar y aprender didáctica de las Ciencias Sociales: la formación del profesorado desde una perspectiva sociocrítica, 602–614. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7609781>

Urrutia Gutiérrez, G. (2022). Iturri historikoen erabilera ikasgelan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan [Master Amaierako Lana]. UEU goimailako online institutua eta UPV/EHU.